

Gaurko argazkiak, biharko oroitzapenak

Lehenengo argazkia, lehenengo momentua, pirinioan, ez nekien nora nindoan, kotxe ezberdin batean. Lehenengo selfia, hiru neska eta mutil bat, niretzako jada ezagunak zirenak. Ez nekien hortik aurrera nire barruan momentu berezi hainbeste gordeko nituenik. Aireportuan hainbeste argazki, klasekideak irribarrez, bidaiaria hasi gabe eta jendea jada nekatua baina gogotsu. Hegazkineko tiketak, Berlin, horra nindoan, ezer ez jakin gabe mila argazki. Lagunen artean urduritasuna nabari. Bideoak, hegazkinera sartzerakoan emozioak nahasiak zeuden, urduritasuna, emozioa, beldur pixka bat ere bai. Aireratzekoan hegazkin moduan, baina argazkiak bere momentu hoberenean. Beste zenbait argazki, baina honetan arrazoi polit batekin, ilunabarra ikusten zen hegazkinetik. Azkenean Berlinen negoen ofizilaki!

Ez nekien 6 egunetan hainbeste momentu kapturatu ahal direnik eta guztiak zoriontsuak. Argazki bakoitza, bideo bakoitza, etorkizunean irribarre bat aterako dizuten hainbeste bizipen, guztiak nire barruan. Berlingo hotza sufritu nuen ere, eta han zeuden jendearen behatz hotzak ere bai. Hoberena dudarik gabe gauz konkretu bat izan zen, bakarrik erabiltzen ninduten bizipen berezi hoiak gordetzeko eta etorkizunean gogorarazteko. Izugarritzko hotza egin arren, beti momentuak kapturatzen ibiltzen nintzen, baina banekien argazki eta bideo hauek zerbait ezberdina zeukatela, bereziak zirela.

Hainbeste, hainbeste leku, hainbeste irribarre, hainbeste lagun, hainbeste monumentu, guztiak nire barruan gordeta gelditu ziren. Behar ez diren gauza asko ere bai hor gordeta geratuko ziren denbora luzerako. Alexander Platz, Brandenburgoko atea, Reichstag-a, Holocaustoan hildako pertsonen egindako omenaldia, liburutegi historikoak, museo desberdinak, Check point charlie-a, Berlingo harresia eta hainbat gauza gehiago nire barruan biltegitratuko nituenak. Lagunekin selfiak, ispiluetan argazkiak, leku turistikoetan argazkiak, bideoblog-ak, logelan dantzatutako abestiak, logelaren paretan gorputzarekin egindako pinoak, bisitatutako lekuak, ilunabarrak eta mila argazki eta bideo gehiago. Guztiak nire barruan geldituko zirenak. Bidaiaren hasieran ez nekien, baina ni izango nintzen bidaiaren albuma, pertsonen ikusten dutena pasatutakoa bergogorarazteko.

Berriz etxean, betiko normaltasunarekin, nik aurreikusi nuen bezala, bera hasi zen argazkiak eta bideoak ikusten, emozio batekin, begietan malko txiki batekin. Bere bizitzako bidaiaria izan zen, baina nirea ere bai. Nire barruan betirako geratuko ziren argazkiak zeudelako. Beti politak izango direnak. Beti bereziak.